

Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan

Andoni Barreña
Salamanca Unibertsitatea

Hizkuntz jabekuntzari buruzko teori lanetan zein ikerketetan iritzi kontrajarriak kaleratu dira gramatikaren garapenaz. Guk, ikerlan honetan, haur euskaldun elebakar batek aditz-komunztaduraren jabekuntza zelan garatzen duen aztertu dugu. Horretarako, haur honek 1;05;19ko adina duenetik 4;00;25eko adina duen arte hileroko bideo-grabaketa baten edo bitan ekoitzirikoa arakatu dugu.

Ikerlanean zehar, gramatikaren atal honen jabekuntza mailakatua ikusi ahal izango dugu, ondoko aldi edo urrats desberdinak gauzatzen dituelarik: inolako komunztadurarik erakusten ez duen aldi goiztiarra; subjektuarekiko komunztaduraren erabileraren hasiera; zehar-osagarriarekiko komunztaduraren erabileraren agertzea; eta, azkenik, osagarri zuzenarekiko komunztaduraren erabileraren jabekuntza.

Azkenean, beste ikerketetan arakaturiko haur elebidunen ekoizpenean aurkitutako datuekin konparatu ditugu guk haur elebakarrarengan bildutakoak, haur guzti hauengan aditz-komunztaduraren jabekuntza mailakatua gertatzen dela dakusagaririk.

With reference to grammar development in language acquisition, opposing opinions have been expressed in different theories and investigation works. In our case we have done a research work on the development of the acquisition of the verb agreement by a monolingual child. For that, we have followed the process of the child's production since he was 1;05;19 until the age of 4;00;25 by video recording once or twice a month.

Throughout our investigation we'll see the gradual acquisition of this part of grammar, which includes the following steps: the early step which shows no agreement at all, the beginning of the use of agreement with the subject, the appearance of the agreement with the indirect object and, at last, the acquisition of the use of the agreement with the direct object.

At the end we have compared our results about our monolingual child with those obtained about other bilingual children and we've seen that, in all cases, we get a graded acquisition of the verb agreement.

Ikerlan honen bitartez euskararen aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena zelan gertatzen den deskribatzea da gure helburua.

Horretarako, 1;05;19ko adina duenetik 4;00;25eko adina duen arte hileroko behin edo birritan bidez grabaturiko haur euskaldun elebatar baten ekoizpen-datuak arakatuko ditugu.

Datuen arabera hainbat urrats desberdin ikusi ahal izango ditugu aditz-komunztaduraren jabekuntzan zehar. Hasiera batean, haur honek ez du inolako aditz-komunztadurarik erabiliko. Subjektuarekiko komunztadura derakusaten adizkiak izango dira haur honek darabiltzan lehenak. Hilabete bi geroago zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizkiak hasiko da erabiltzen. Azkenik, osagarri zuzenarekiko komunztadura aurkituko dugu.

Aditz-komunztadura hirukoitzaren jabekuntza hiru urte egin ditueneko lortu duela esan dezakegu, baina garapena mailakatua izan duenarik, eta ez bat-batekoa.

Lanaren helburuak

Lan honen helburu nagusia haur euskaldun elebatar bat aditz-komunztaduraz zelan jabetzen den deskribatzea da.

Jakina da euskaraz aditz-komunztadura hirukoitza dela, hots, subjektuarekikoa, osagarri zuzenarekikoa eta zehar-osagarriarekikoa. Gure asmoa, beraz, haur elebatar hau aditz-komunztadura hirukoitza zelan hasten den erabiltzen aztertzea da: zein adinekin, zein adizkirekin, zein hurren-

keratan, zein eragozpenekin (baldin baleuzka, noski), eta abar.

Gure ustez, haurrek, orohar, gramatikaren jabekuntza-garapena garunaren heltze neurologikoari zor diote, nolabait sortzetik Gramatika Unibertsalaren hornia baitute. Gramatika Unibertsala deritzan hornia haurrei 2 urte inguru dutenean erabilgarria egiten zaie, hizkuntzaren gramatikatzeari bideratzen dielarik (ikus Bickerton 1991).

Edozelan ere, haurrek gramatika-ezaugarriak gabeko aldia ezagutzen dutela uste dugu. Garunaren heltze neurologikoaren aurretik gertatzen den aldi auresintaktiko honetan haurrek ez dute inolako gramatika-ezaugarriak erabiltzen, eta guk aztertuko dugun haur euskaldunaren ekoizpenean ere halako aldi bat aurkitzea espero dugu. Antzeko aldia, zenbait haurren hizkuntzaren jabekuntza-garapenetan hainbat ikerlarik aurkitu dute, esate baterako, Aldridge-k (1986), haur ingelesaren jabekuntza aztertzean, INFL funtzio-kategoriari gabeko aldi goiztiarra aurkitu du; Platzack-ek (1989), haur suediarren jabekuntza arakatzeari, INFL eta KONP funtzio-kategoriari gabeko aldia ikusi du; Meisel-ek (1994a), haur frantses-germaniar elebidunen jabekuntza ikertzean, hizkuntza bietan beste horrenbeste gertatzen dela defendatu du; eta abar.

Bestalde, behin Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa haurrek erabil dezaketelarik, gramatika-garabidea ez dugu uste bat-batean gertatzen denik, era mailakatuan baino. Eta baliteke gramatika-garabide honek duen hurrenkera haurrak ikasten ari diren hizkuntzaren perpausaren egitura hierarkikoak bideratzea (ikus Meisel 1994a).

Laburbildurik, haur euskaldun elebakar honen aditz-komunztaduraren jabekuntzaren garapena arakatzean, honako hau espero dugu aurkitzea: alde batetik, aditz-komunztadurarik gabeko aldi goiztiarra; bestetik, aditz-komunztadura desberdinen erabilera mailakatua; eta, azkenik, komunztadura-mota desberdinek euskal INFL-en barne-egituran izan dezaketen hurrenkera hierarkikoa. Azken hipotesi honen arabera, aditz-komunztadura desberdinen erabilera subjektuarekiko komunztadurarenetik hastea ere espero izatekoa da.

Lan honetan, bada, euskararen aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapenean aurkitu ditugun datuak ordenatzera eta eskaintzera mugatuko gara. Alabaina, datu hauen interpretazioa ere egiten ahaleginduko gara.

Azterturiko korpusa

Ikerlan honetarako erabiliko ditugun datuak Oitz deritzan haur euskaldun elebakarrak 1;05eko adina izan duenetik 4;00ko adina duen arte ekoitzirikoak dira. Datu-bilketa hau Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia Saileko H.E.G.E.H.J.¹

ikerketa-taldeak burutu zuen, haurra bidez grabatuz.

Bideo-grabaketak etxeko berezko giroan egin dira, haurrarekin batera gurasoetako batek jolasten eta kontu kontari hogeita hamarren bat minututan diharduelarik. Grabaketak transkribatuak izan dira, gutxienez hileroko bat, eta ondoren, haurra ondo ezagutzen duen batek transkribatutakoa zuzendu egin du. Erabili ditugun bideo-grabaketa transkribatuen zerrenda, adinaren arabera tajaturik, 1. taulan ikus daiteke ².

Haurrak gauzaturiko ahozko ekoizpen horietatik, errepika zuzentzat jo daitezkeenak, berarekin diharduen mintzaideren batek aurretik esandakoak, alegia, baztertu egin ditugu gure ikerketatik, zalantzagarrria izan daitekeelako halako ekoizpenek haurraren gaitasuna isladatzen dutenentz.

Bestalde, grabaketako uneez, adinaz gaineko informazioa izan dezagun, ebbl-neurriak³ 1. taulan jarri ditugu. Ebbl-neurriekin batera, ebbl-mailak eta el-balioak⁴ ere ikus daitezke.

1. *Haur Euskaldun Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza* ikerketa-taldea, Itziar Idiazabal irakaslearen gidaritzapean, honako lankide hauek osatzen dute: Kristina Elozegi, Marijo Ezeizabarrena, Margareta Almgren, Elena Urzelai, Susana Irizar, Idoia Imaz, Izaskun Soloeta eta Andoni Barreña. Talde honek, bestalde, Hanburgeko Unibertsitateko Jürgen Meisel irakasleak zuzentzen duen B.U.S.D.E. proiektuarekin batera dihardu lanean.

2. 1. taula honetan 3;06;24ko adina duen arteko datuak baino ez ditugu erakutsiko.

3. Ebbl-neurria, hots, esaldiaren batezbesteko luzera deritzan neurria, Brown-ek (1976) asmatu zuen haurren hizkuntza-maila neurtzeko asmoz. Euskararako moldaketa Idiazabalek (1991a) egin zuen, eta gu honen irizpidez baliatu gara. Neurketa honen bidez, haurrak une bakoitzean darabilen hizkuntzaren konplexutasuna, morfema desberdinen erabilera alegia, neurtu egin gura da.

4. Une horretako esaldirik luzeena adierazten du, lexemak eta morfemak zenbatuta.

1. Taula

OITZ HAURRAREN EBBL-NEURRIAK, EBBL-MAILAK ETA EL-BALIOAK ADINAREN ARABERA

| Adina | Ebbi-a | Maila | El-a |
|---------|--------|----------------|------|
| 1;05;19 | 1,12 | I | 2 |
| 1;06;22 | 1,14 | I | 3 |
| 1;07;20 | 1,23 | I | 3 |
| 1;08;29 | 1,41 | I | 4 |
| 1;10;12 | 1,38 | I | 4 |
| 1;11;05 | 1,75 | I | 5 |
| 2;00;05 | 1,77 | II | 7 |
| 2;00;26 | 1,93 | II | 4 |
| 2;01;19 | 1,94 | II | 8 |
| 2;02;00 | 2,28 | III | 6 |
| 2;03;09 | 2,36 | III | 7 |
| 2;04;11 | 2,45 | III | 8 |
| 2;04;24 | 3,34 | IV | 10 |
| 2;05;05 | 3,23 | IV | 10 |
| 2;05;21 | 3,40 | IV | 10 |
| 2;06;05 | 3,79 | V | 11 |
| 2;06;25 | 3,43 | IV | 11 |
| 2;07;05 | 3,40 | IV | 17 |
| 2;08;13 | 4,12 | + ⁵ | 17 |
| 2;08;19 | 3,97 | + | 15 |
| 2;09;00 | 4,64 | + | 15 |
| 2;10;12 | 4,14 | + | 15 |
| 2;10;29 | 4,35 | + | 15 |
| 2;11;12 | 3,89 | V | 19 |
| 3;00;10 | 4,21 | + | 15 |
| 3;01;12 | 5,36 | + | 17 |
| 3;02;04 | 4,45 | + | 13 |
| 3;03;07 | 5,17 | + | 14 |
| 3;04;08 | 5,44 | + | 17 |
| 3;05;14 | 4,93 | + | 19 |
| 3;06;24 | 6,27 | + | 19 |

Oitz haurrak Bizkaiko ekialdeko bizkaiera ikasten diharduenek, erakutsiko ditugun adibideak haurrak ekoitzi

dituen bezalakoak izango dira, batzuetan zenbait fonetismo transkribatuko ez baditugu ere.

5. Brown-ek asmatutako neurtza-moeta honek ebbi-neurtza 5 mailatan sailkatzen ditu, V mailako baliorik handiena 4,00koa delarik. Haurrak balio hori baino handiagoko ebbi-a baldin badu, heldutasun handia lortu dela onartzen da eta beraren gramatika-ahalmena oso garrantzitsutzat jotzen da. Guk, lan honetan, + ikurra erabiliko dugu hizkuntza-maila adierazteko, ebbi-a 4,00 balioetik gainera denean.

Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena

Atal honetan, Oitz haurraren aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapenaren azterketari lotuko gatzaizkio. Baina datuak aurkezterakoan, haur honek arlo honetan betetzen dituen urrats desberdinen arabera egingo dugu. Horrela, lau azpiatal desberdin ikusi ahal izango ditugu: aditz-komunztadurarik gabeko aldia, subjektuarekiko aditz-komunztadura agertzen deneko urratsa, zehar-osagarriarekikoa agertzen denekoa, eta, azkenik, osagarri zuzenarekikoa agertzen den urratsa.

1. Aditz-komunztadurarik gabeko aldia

Guk bildu ditugun datuen arabera, Oitz 2;00;05eko adineko grabaketan hasten da adizki jokatuak erabiltzen. Aurreko grabaketetan ez dugu halakorik ikusi ahal izan, gurasoek bilduriko egunerokoan jarraian ikusiko ditugun antzeko adizkiak agertzen diren arren.

Aldi honetan ekoizten dituen adizki jokatuak, trinkoak zein laguntzaileak, denak dira indikatiboko orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak: *da*, *daki*, *da[g]o*, *deko* [=dauka]. Hona hemen zenbait adibide:

- (1) azala izan da (2;00;05)
- (2) ez da[g]u hemen (2;00;05)
- (3) hori zer da? (2;00;26)
- (4) ez da[g]u zezena (2;00;26)

- (5) argie izetu da (2;01;19)
- (6) hortxe egon da (2;01;19)
- (7) ez daki (2;01;19)

Baina adizki hauek ez darabiltza beti subjektua singularreko hirugarren pertsona denean, batzuetan subjektua lehen pertsona edo pluraleko hirugarren pertsona direnean ere halakoak ikus baititzakegu. Hona hemen adibide batzuk:

- (8) bi da[g]u (2;00;05)
- (9) ni⁶ kertsie badeko (2;02;00)
- (10) [nik] ez daki (2;02;00)

Argi dago goiko adibideetan subjektua pluraleko hirugarren pertsona izanik (*bi*) edo singularreko lehena (*nik*), haurrak singularreko hirugarren pertsonari dagokion aditz-forma ekoizten duela (*dago*, *dauka*, *daki*).

Honexegatik guztiarengatik, erabiltzen dituen adizki jokatu guztiak indikatiboko orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak direlako, eta edozein subjektu-pertsonaz darabiltzalako, ez dugu uste aditz-komunztadurarik adierazten dutenik, haur honen ekoizpenean, noski. Beste berba batzuek esanda, Oitz haurra oraingo ez da gai aditz-komunztadura egoki erabiltzeko.

Adizki trinkoek, beraz, lexema hutsak dirudite. Bestalde, Oitzek darabilen adizki laguntzaileak (*da* baino ez darabil) beste zeregin bat ere badu: adizki trinkoak eta laguntzaileak bereiztea, argi baitago, trinkotzat zein

6. Adibide honetan subjektuaren ergatibo-marka ere ez du ekoitzi. Ikerlan honetan aditz-multzoko berezitasunak arakatzeari lotuko gatzaizkionez, beste arloetako berezitasunei begiratzeko, ikus Barreña (1993 eta 1994d).

laguntzailatzat egoki darabilela adizki hau.

2. Subjektuarekiko aditz-komunztaduraren erabilera.

Gorago aurreratu dugunez, subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizkiak dira Oitzek darabiltzan lehenak.

Oitz 2;03;09ko adina duenean, guk aztertu ditugun grabaketen arabera, singularreko lehen eta hirugarren pertsonari dagozkien adizkiak egoki erabiltzen hasten da. Hona hemen lehen adibideak:

(11) ni naz; ni naz, onbe ume!; hola, ni naz (2;03;09)

(12) ba makila bat da; hor da[g]u; ez dabil; holan ez da (2;03;09)

(13) badakit; ez dakit (2;03;09)

(14) badaki (2;03;09)

Bildu ditugun adibide hauek guztiak trinkoak diren arren, egoki moldatzen ditu Oitzek komunztaduraren arabera, eta gainera gramatika-pertsona desberdin biri dagozkien aditz-formak egoki darabiltzala erakusten digute. Hurrengo grabaketa transkribatuan, hainbat pertsonari dagozkion adizkiak ere ikus ditzakegu, singularreko bigarrenari eta pluraleko hirugarrenari hain zuzen. Hona hemen zenbait adibide:

(15) ez da[g]uz zikinak (2;04;11)

(16) badakizu zer? (2;04;11)

(17) hau ez dekot ipinita (2;04;11)

Gramatika-kategoria baten jabe-kuntza bermatzeko, besteak beste, elementu desberdin biren erabilera

zuzena baieztatu behar dela uste dugunez, Oitz 2;03;09ko adina duenetik baino ez da hasi subjektuarekiko aditz-komunztadura erabiltzen, lehenago singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak baino ez baititu erabili. Gainera, adizki iragangaitzen (*naiz, da*) zein iragankorren (*dakit, daki*) bidez hasten da erabiltzen pertsona desberdinei dagozkien formak.

Alabaina, adizki iragankorreki buruz haxe esan behar dugu: une honetan ez dutela osagarri zuzenarekiko aditz-komunztadurarik erakusten, singularreko hirugarren pertsonako formak baino ez baitarabiltza oraingoz. Horrela bada, arlo honetan aurkakotasunik ez erakustean, forma iragankor hauek haur honen ekoizpenean, oraingoz, subjektuarekiko aditz-komunztadura baino ez derakusatela uste dugu.

Une honetatik aurrera, apurka-apurka, baina etengabe, grabaketen datuen arabera behintzat, zabaldu egiten da subjektuarekiko aditz-komunztadura haur honen ekoizpenean. Zabalkuntza hau hobeto ikus dezagun hiru taula desberdin prestatu ditugu: 2. taulan subjektuari dagozkion adizkien lehen erabileraren dataketa adierazten dugu; 3. taulan 3;00;10eko adina duen arte darabiltzan adizki iragangaitz guztien (trinkoen zein laguntzaileen) ekoizpen-kopuruak pertsona desberdinen arabera aurki ditzakegu; eta, azkenik, 4. taulan gauza berbera ikus dezakegu, baina adizki iragankorren ekoizpen-kopuruekin.

Gure lan honen helbururik behine-netarikoa datuak eskaintzea denez, jarraian Oitzek grabaketetan zehar darabiltzan adizki jokatu desberdinen ekoizpen-kopuruak erakutsiko ditugu

2. Taula

OITZ HAURRAREN SUBJEKTUAREKIKO PERTSONA-KOMUNZTADURAREN ERABILERAREN HASIERAREN DATAKETA

| | Adizkia ⁷ | Morfema | Adina |
|-----------------|----------------------|---------|---------|
| Iragangaitzak | | | |
| Sing. 1. perts. | na[i]z | n- | 2;03;09 |
| Sing. 2. perts. | zara | z- | 2;04;24 |
| Sing. 3. perts. | da, da[g]u | d- | 2;00;05 |
| Plur. 1. perts. | gara | | 2;08;13 |
| Plur. 2. perts. | | | |
| Plur. 3. perts. | da[g]uz | d-, -z | 2;04;11 |
| Iragankorrak | | | |
| Sing. 1. perts. | dakit | -t | 2;03;09 |
| Sing. 2. perts. | dakizu | -zu | 2;04;11 |
| Sing. 3. perts. | daki | -∅ | 2;01;19 |
| Plur. 1. perts. | dogu | -gu | 2;04;24 |
| Plur. 2. perts. | dozue | -zue | 2;07;05 |
| Plur. 3. perts. | dabe [=dute] | -be | 2;06;05 |

3. Taula

OITZ HAURRAK 3;00;10EKO ADINA DUEN ARTE EKOIZTEN DITUEN ADIZKI IRAGANGAITZ JOKATUAK KOPURUETAN

| | sing. 1.a | sing. 2.a | sing. 3.a | plur. 1.a | plur. 2.a | plur. 3.a |
|---------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| 2;00;05 | | | 5 | | | |
| 2;00;26 | | | 7 | | | |
| 2;01;19 | | | 5 | | | |
| 2;02;00 | | | 31 | | | |
| 2;03;09 | 3 | | 27 | | | |
| 2;04;11 | | | 18 | | | 1 |
| 2;04;24 | 3 | 1 | 46 | | | |
| 2;05;05 | 1 | | 54 | | | 1 |
| 2;05;21 | 11 | 1 | 35 | | | 3 |
| 2;06;05 | | | 46 | | | 4 |
| 2;06;25 | 1 | | 46 | | | 5 |
| 2;07;05 | 5 | | 34 | | | 6 |
| 2;08;13 | 10 | 5 | 52 | 1 | | 8 |
| 2;08;19 | 1 | | 18 | | | 6 |
| 2;09;00 | 7 | 2 | 73 | | | 6 |
| 2;10;12 | 5 | | 41 | 1 | | 9 |
| 2;10;29 | | 2 | 50 | | | 8 |
| 2;11;12 | | 4 | 45 | | | 8 |
| 3;00;10 | 4 | | 27 | 2 | | 1 |

7. Taula honetan jarri ditugun adizkiak Oitzek ekoizten dituen lehenak dira. Haatik, aditz desberdinetako formak ikus daitezke (zehatzago: laguntzaileak eta *egon* eta *jakin* aditzen forma trinkoak).

4. Taula

OITZ HAURRAK 3;00;10EKO ADINA DUEN ARTE EKOIZTEN DITUEN ADIZKI IRAGANKOR JOKATUAK KOPURUETAN

sing. 1.a sing. 2.a sing. 3.a plur. 1.a plur. 2.a plur. 3.a

| | | | | | | |
|---------|----|----|----|---|---|---|
| 2;00;05 | | | | | | |
| 2;00;26 | | | | | | |
| 2;01;19 | | | 11 | | | |
| 2;02;00 | | | 4 | | | |
| 2;03;09 | 3 | | 3 | | | |
| 2;04;11 | 2 | 1 | 2 | | | |
| 2;04;24 | 2 | 1 | 9 | 2 | | |
| 2;05;05 | 13 | 8 | 25 | 5 | | 2 |
| 2;05;21 | 13 | 4 | 2 | 3 | | |
| 2;06;05 | 15 | 2 | 10 | | | 1 |
| 2;06;25 | 13 | | 19 | 1 | | |
| 2;07;05 | 21 | 1 | 9 | 1 | 1 | 1 |
| 2;08;13 | 17 | 11 | 5 | | | 4 |
| 2;08;19 | 11 | 7 | 9 | 3 | | |
| 2;09;00 | 12 | 11 | 17 | 4 | | 2 |
| 2;10;12 | 33 | 8 | 12 | 3 | | |
| 2;10;29 | 18 | 3 | 12 | 3 | | |
| 2;11;12 | 30 | 3 | 7 | 8 | | |
| 3;00;10 | 38 | 5 | 2 | | | 5 |

5. Taula

OITZ HAURRAREN NOR SISTEMAKO IZAN ADITZ TRINKOAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | na[i]z ⁸ | zara | da | gara | zare[t]e | die[z] [=dira] |
|---------|---------------------|------|----|------|----------|----------------|
| 2;03;09 | 3 | | 15 | | | |
| 2;04;11 | | | 8 | | | |
| 2;04;24 | | | 19 | | | |
| 2;05;05 | | | 19 | | | 1 |
| 2;05;21 | 2 | 1 | 14 | | | |
| 2;06;05 | | | 29 | | | |
| 2;06;24 | | | 6 | | | |
| 2;07;05 | | | 10 | | | 1 |
| 2;08;13 | 1 | 3 | 24 | | | 1 |
| 2;08;19 | | | 10 | | | |
| 2;09;00 | 4 | | 41 | | | 1 |
| 2;10;12 | | | 21 | | | 3 |
| 2;10;29 | | 2 | 24 | | | 1 |
| 2;11;12 | | | 14 | | | 2 |
| 3;00;10 | 2 | | 11 | | | |

8. Tauletan zehar Oitzek darabiltzan bizkaieraren aditz-formak jartzen ahaleginduko gara.

adinaren eta aditz desberdinen arabera: *izan* (5. taula), *egon* (6. taula), *joan* (7. taula), *etorri* (8. taula) eta *ibili* (9. taula) aditz trinko iragangaitzenak; *izan* aditz laguntzaile iragangaitza-

renak (10. taula); *jakin* (11. taula) eta *eduki* (12. taula) aditz trinko iragankorrenak; eta, azkenik, *ukan* aditz laguntzaile iragankorrenak (13. taula).

6. Taula

OITZ HAURRAREN NOR SISTEMAKO EGON ADITZAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | na[g]u | za[g]uz | da[g]u | ga[g]uz | za[g]uzie | da[g]uz |
|---------|--------|---------|--------|---------|-----------|---------|
| 2;03;09 | | | 8 | | | |
| 2;04;11 | | | 3 | | | 1 |
| 2;04;24 | | | 11 | | | |
| 2;05;05 | | | 15 | | | |
| 2;05;21 | | | 9 | | | |
| 2;06;05 | | | 3 | | | 3 |
| 2;06;24 | | | 12 | | | 3 |
| 2;07;05 | | | 12 | | | 2 |
| 2;08;13 | | | 14 | | | 5 |
| 2;08;19 | | | 5 | | | 4 |
| 2;09;00 | | | 10 | | | 2 |
| 2;10;12 | | | 4 | | | 4 |
| 2;10;29 | | | 6 | | | 2 |
| 2;11;12 | | | 2 | | | 3 |
| 3;00;10 | | | 10 | | | |

7. Taula

OITZ HAURRAREN NOR SISTEMAKO JOAN ADITZAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | nue/noie | zuez/zoiez | due/doie | guez/goiez | zuezie | duez/doiez |
|---------|----------|------------|----------|------------|--------|------------|
| 2;04;24 | 3 | 1 | 2 | | | |
| 2;05;05 | 1 | | 3 | | | |
| 2;05;21 | | | 5 | | | 2 |
| 2;06;24 | | | 4 | | | |
| 2;07;05 | 1 | | | | | 2 |
| 2;08;19 | 1 | | 1 | | | |
| 2;10;12 | | | 1 | | | |
| 3;00;10 | 1 | | | | | |

8. Taula

OITZ HAURRAREN NOR SISTEMAKO ETORRI ADITZAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | nator | zatoz | dator | gatoz | zatozie | datoz |
|---------|-------|-------|-------|-------|---------|-------|
| 2;05;05 | | | 1 | | | |
| 2;06;05 | | | 5 | | | |
| 2;06;24 | | | 4 | | | |
| 2;07;05 | | | 1 | | | |
| 2;09;00 | | | 1 | | | |
| 3;00;10 | | | 1 | | | |

9. Taula

OITZ HAURRAREN NOR SISTEMAKO IBILI ADITZAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | nabil | zabiz | dabil | gabiz | zabizie | dabiz |
|---------|-------|-------|-------|-------|---------|-------|
| 2;03;09 | | | 1 | | | |
| 2;06;24 | | | | | | 1 |
| 2;07;05 | | | | | | 1 |
| 2;08;13 | | | 1 | | | 1 |
| 2;09;00 | | | 1 | | | |

10. Taula

OITZ HAURRAREN NOR SISTEMAKO IZAN ADITZ LAGUNTZAILEAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | na[i]z | zara | da | gara | zare[t]e | di[r]ez |
|---------|--------|------|----|------|----------|---------|
| 2;03;09 | | | 3 | | | |
| 2;04;11 | | | 7 | | | |
| 2;04;24 | | | 14 | | | |
| 2;05;05 | | | 16 | | | |
| 2;05;21 | 9 | | 14 | | | 1 |
| 2;06;05 | | | 9 | | | 1 |
| 2;06;24 | 1 | | 20 | | | 1 |
| 2;07;05 | 4 | | 11 | | | |
| 2;08;13 | 9 | 2 | 13 | 1 | | 1 |
| 2;08;19 | | | 1 | | | 2 |
| 2;09;00 | 3 | 2 | 20 | | | 3 |
| 2;10;12 | 5 | | 16 | 1 | | 2 |
| 2;10;29 | | | 20 | | | 5 |
| 2;11;12 | | 4 | 19 | | | 3 |
| 3;00;10 | 1 | | 4 | 2 | | 1 |

11. Taula

OITZ HAURRAREN *NOR-NORK* SISTEMAKO *JAKIN* ADITZAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | dakit | dakizu | daki | dakigu | dakizue | daki[t]e |
|---------|-------|--------|------|--------|---------|----------|
| 2;03;09 | 3 | | 3 | | | |
| 2;04;11 | 1 | 1 | 1 | | | |
| 2;04;24 | 2 | 1 | | | | |
| 2;05;21 | 1 | | | | | |
| 2;06;05 | 1 | | 3 | | | |
| 2;06;24 | 3 | | | | | |
| 2;07;05 | 7 | | 1 | | | |
| 2;08;13 | 11 | | 1 | | | |
| 2;08;19 | | 1 | | | | |
| 2;09;00 | 9 | 9 | 1 | | | |
| 2;10;12 | 12 | | | | | |
| 2;10;29 | 2 | 1 | 1 | | | |
| 2;11;12 | 9 | 3 | | 1 | | |
| 3;00;10 | 18 | 4 | | | | |

12. Taula

OITZ HAURRAREN *NOR-NORK* SISTEMAKO *EDUKI* ADITZAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | dekot ⁹ daukat | dekozu daukazu | deko dauka | dekogu daukagu | dekozue daukazue | dekie daukate |
|---------|------------------------------|-------------------|---------------|-------------------|---------------------|------------------|
| 2;04;11 | 1 | | 1 | | | |
| 2;05;05 | 3 | | 6 | | | |
| 2;06;05 | | 1 | | | | |
| 2;06;24 | | | 9 | | | |
| 2;07;05 | | | 1 | 1 | | |
| 2;08;13 | 4 | | 3 | | | |
| 2;08;19 | 3 | 2 | 3 | 2 | | |
| 2;09;00 | 1 | 1 | 8 | | | |
| 2;10;12 | 1 | 2 | 3 | 1 | | |
| 2;10;29 | 2 | | 8 | 1 | | |
| 2;11;12 | 2 | | | 1 | | |
| 3;00;10 | 2 | | 2 | | | 1 |

9. Taula honetan eta hurrengoan Oitzek darabiltzan formez gain, azpian euskara estandarera itzulitakoak ere jartzea erabaki dugu.

13. Taula

OITZ HAURRAREN NOR-NORK SISTEMAKO UKAN ADITZ LAGUNTZAILEAREN ERABILERA KOPURUKA ETA ADINAREN ARABERA

| | dot dut | dozu duzu | dau du | dogu dugu | dozuie duzue | dabe dute |
|---------|------------|--------------|-----------|--------------|-----------------|--------------|
| 2;03;09 | | | | | | |
| 2;04;11 | | | | | | |
| 2;04;24 | | | 9 | 2 | | |
| 2;05;05 | 12 | 8 | 19 | 5 | | 2 |
| 2;05;21 | 12 | 4 | 2 | 3 | | |
| 2;06;05 | 14 | 1 | 7 | | | 1 |
| 2;06;24 | 10 | | 9 | 1 | | |
| 2;07;05 | 14 | 1 | 7 | | 1 | 1 |
| 2;08;13 | 2 | 11 | 1 | | | 4 |
| 2;08;19 | 8 | 4 | 7 | 1 | | |
| 2;09;00 | 20 | 1 | 8 | 4 | | 2 |
| 2;10;12 | 7 | 6 | 9 | 2 | | |
| 2;10;29 | 8 | 2 | 3 | 2 | | |
| 2;11;12 | 19 | | 7 | 6 | | |
| 3;00;10 | 18 | 1 | | | | 4 |

Subjektuarekiko aditz-komunztadura erabiltzen hasten denean, Oitz haurrak badu arlo honetan ez-egokitasun bat:

(18) ez dau [=du] gur[a] [d]ozu; ez dau [=du] gur[a] [d]ozu kendu (2;05;05)

Adibide honetan adizki laguntzaile bi ekoizten dituela dirudi. Alde batetik, ez ezeztapen partikularrarekin batera, arauak eskatzen duen legez, du laguntzailea gauzatu du; bestetik, gura aditz nagusiaren ondoren, ezezkoetan gertatzen ez den eran, *duzu* laguntzailea ekoizti du. Oitz haurrak lagun batekin eta bere amarekin dihardu olgatzen, eta beraz, inguruaren arabera, adizki laguntzaile bietariko edozein erabil dezake. Ez-egokitasuna argia den arren, beraren zergatia ez dugu uste hain argi dagoenik. Baliteke haurraren asmoan mezuaren hartzaileak (amari zuzenduz hirugarren

pertsona, lagunari zuzenduz bigarren pertsona) nahastea. Edozelan ere, kontutan hartu behar dugu ikusi ahal izan dugun ez-egokitasun bakarra dela, egokitasunak ugariak diren bitartean.

Une honetan, bestalde, nabaria da hainbat esalditan oraindik adizki jokaturik ez darabilela. Hona hemen adizki jokaturik gabeko esaldi batzuk:

(19) nik ibili lehen; honaz altxau; hau sartu; hau hemendi makurtu; ama, hemen sartu oroa; hor kanpuen ein (2;03;09)

(20) ta lehena[g]u hau bota; Jurgik zikindu; berak apurtu hori (2;04;11)

(21) ba holan altxau nik eta punbala; honek eru[a]n; ezebez emongo (2;04;24)

14. Taula

OITZ HAURRAREN ADIZKI JOKATU ETA JOKATUGABEEN ESALDI-KOPURUAK ETA EHUNEKOAK ADINAREN ARABERA

| | jokatugabeak | jokatuak |
|---------|--------------|-------------|
| 1;05;19 | 4 - % 100 | |
| 1;06;22 | 4 - % 100 | |
| 1;07;20 | 14 - % 100 | |
| 1;08;28 | 52 - % 100 | |
| 1;10;02 | 26 - % 100 | |
| 1;11;05 | 36 - % 100 | |
| 2;00;05 | 11 - % 69 | 5 - % 31 |
| 2;00;26 | 11 - % 65 | 6 - % 35 |
| 2;01;19 | 46 - % 84 | 9 - % 16 |
| 2;02;00 | 52 - % 77 | 15 - % 23 |
| 2;03;09 | 30 - % 50 | 30 - % 50 |
| 2;04;11 | 25 - % 53 | 22 - % 47 |
| 2;04;24 | 20 - % 23 | 67 - % 77 |
| 2;05;05 | 15 - % 17 | 71 - % 83 |
| 2;05;21 | 11 - % 13 | 72 - % 87 |
| 2;06;05 | 11 - % 11 | 93 - % 89 |
| 2;06;24 | 4 - % 4 | 86 - % 96 |
| 2;07;05 | 2 - % 3 | 72 - % 97 |
| 2;08;13 | 1 - % 1 | 114 - % 99 |
| 2;08;19 | 2 - % 3 | 60 - % 97 |
| 2;09;00 | 2 - % 1 | 150 - % 99 |
| 2;10;12 | 1 - % 1 | 122 - % 99 |
| 2;10;29 | 1 - % 1 | 106 - % 99 |
| 2;11;12 | | 112 - % 100 |
| 3;00;10 | 2 - % 1 | 82 - % 98 |

(22) nik oraitik hau hartu; ta beste bat erosi (2;05;05)

Adizki jokaturik gabeko esaldi-kopuruak eta ehunekoak 14. taulan ikus daitezke. Bertan ikusten da Oitz haurraren bilakaera adizki jokatuaren erabileran.

Taula honetan argi dago 2;00;05eko adina duen arte ez duela adizki jokaturik erabiltzen, eta ondoren, apurka-apurka, hauen kopurua eta maiztasuna handituz doala. Azpimarragarriak iruditzen zaizkigu une bi: 2;03;09ko adina, subjektuarekiko aditz-komuntadura erabiltzen hasten

denean, alegia, adizki jokatuaren ehunekoak 50era heltzen baita, eta 2;04;24 / 2;05;05eko adina, adizki jokatuaren ehunekoak 77/83ra iristen baita.

3. Zehar-osagarriarekiko komuntaduraren erabilera

Zehar-osagarriarekiko komuntadura derakusaten adizkien erabileraren hasiera 2;04;24ko adineko grabaketan ikus dezakegu Oitzen ekoizpenean. Alabaina, aurreko grabaketan, 2;04;11koan hain zuzen, adibide isolatu bat ere erabili du. Gogora dezagun, bestalde, une honetan, 2;04;24ko adina duenean,

haur honen adizki jokatudun esaldien kopurua eta ehunekoa guztiz handitzen dela (% 77ra iritsiz).

Haur hau erabiltzen hasten den zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizkiak iragangaitzak zein iragankorrak dira. Hona hemen lehenetariko adibideak:

- (23) ala, jausi jate [=zait̪]! (2;04;24)
- (24) garajje eingo dotza[gju] [=diogu];
ze bestelan kenduko dozku
[=digu] (2;04;24)
- (25) jausi ein jate [=zait̪] (2;05;05)
- (26) hau no[r]k apurtu dozte [=dit̪]?
(2;05;05)
- (27) papela kendu eta nik ipiniko
dotzet [=diolet̪]; ba nik papela
kenduta ipiniko dotzet [=diolet̪]
(2;06;25)
- (28) nik emongo dotziet[=diolet̪]; oin, ja,
jo eiten dotzet [=diolet̪] kotxiari
(2;06;24)

Une honetan, guk aztertu dugun ekoizpen osoan aurkitu dugun ez-egokitasun bakarra ere ikus dezakegu. Hona hemen berau:

- (29) honek [=hauek] diez [=dira] nik,
honek [=hauek] nik ekarri dot,
ama hori, hori nik ekarri dozte
[=dit̪], nik (2;05;25)

Alde batetik, kontutan hartu behar dugu une honetan hasi dela Oitz zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizki laguntzaileak erabiltzen. Bestetik, ekoizpen honen ingurua ere gogoan izan beharko genuke. Oitzek bere lagun batekin eta bere amarekin dihardu, eta lagunarekin haserreturik, jostailu batzuk direla eta, ekoizpen hau amari erantzunez burutzen du. Ekoizpen honetan *dit*

laguntzailea darabil, *diolet* edo *dizkiot* erabili beharrean. Gainera, osagarri zuzenarekiko komunztaduraz oraingoz jabetu ez dela ere argi uzten du, *ditut* adizkiaren ordeztatu *dut* adizkia baitarabil. Gure ustez, zehar-osagarriarekiko komunztaduraren arloko hauraren ez-egokitasun hau, neurri handi batean behintzat, une horretan jasaten ari den tentsioari dagokio. Honez gain, gorago esan dugunez, kontutan izan behar dugu halako adizkiak ere oraintsu hasi dela erabiltzen.

Lehenago subjektuarekiko komunztadura derakusaten adizkiez ikusi dugun legez, zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizkiak erabiltzen hasten denean ere, sarritan uzten du adizki laguntzailea gauzatu barik. Hona hemen zenbait adibide:

- (30) baina niri osatu, Mikel; Mikeleri
bai itxi; Mikelen aitaxori, hareri
mutilari bapez pasatu; gero
momorroak kendu (2;06;05)

Nolanahi ere, arlo honetako adizkien erabilera, apurka-apurka, sendotuz eta zabalduz doala ikus dezakegu. Oitzek hiru urte ingurura arte darabiltzan halako adizkiez 15. taula osatu dugu. Bertan, adizkiez gain, lehen ekoizpenean duen adina eta 3;00;10eko grabaketara arteko ekoizpen-kopurua adierazten ditugu.

Gogoan izan behar dugu haur honek, grabaketen korpusean, eta 3;01eko adina duen arte, NOR-NORI sistemako orainaldiko 5 adizki eta NOR-NORI-NORK sistemako orainaldiko 11 adizki eta iraganeko 3 adizki desberdin darabiltzala. Eta gainera, egokitasun osoaz.

Bestalde, adizki iragankorreki buruz kontutan izan behar dugu, lehenago ere esan dugunez, osagarri zuzena-

15. Taula

OITZ HAURRAK ZEHAR-OSAGARRIAREKIKO KOMUNZTADURA DERA- KUSATEN ETA HIRU URTE INGURURA ARTE DARABILTZAN ADIZKIAK

| | Adina | Kopurua |
|---------------------------------|---------|---------|
| Iragangaitzak | | |
| jata [=zait̪] | 2;04;11 | 8 |
| jatzu [=zaizu] | 3;01;28 | |
| jako [=zaio] | 2;09;00 | 7 |
| jake [=zaie] | 2;10;29 | 1 |
| jataz [=zaizkit̪] | 2;10;29 | 2 |
| Iragankorrak | | |
| dotzut [=dizut̪] | 2;06;05 | 3 |
| dotzet [=diolet̪] | 2;06;05 | 10 |
| dotziet [=die̪t̪] | 2;06;25 | 1 |
| doztezu [=didazu] | 2;07;05 | 5 |
| dozte [=dit̪] | 2;05;05 | 8 |
| dotzu [=dizu] | 3;00;10 | 2 |
| dotze [=dio] | 2;08;13 | 7 |
| dozku [=digu] | 2;04;24 | 2 |
| dotzegu [=diogu] | 2;04;24 | 2 |
| doztez [=dizkit̪] | 2;10;29 | 1 |
| dotzeguz [=dizkiogu] | 2;11;12 | 2 |
| dotzuten ¹⁰ [=nizun] | 2;11;12 | 1 |
| dozten [=zidan] | 2;11;12 | 1 |
| dotzegun [=genion] | 2;09;00 | 1 |

rekiko aditz-komunztaduraren isla-dapena haur honen ahalmenean bermatzeko, aurkakotasunaren erabilera aurkitu behar dugula arlo honetan, eta hori ez dakusagula zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusaten adizki iragankorren erabileraren hasieran.

4. Osagarri zuzenarekiko komunztaduraren erabilera

Osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera baieztatzeke pertsona desberdinei dagozkien adizkien erabilera kontrajarria ikusi

beharko dugu. Jakina da NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK, hots, aditz-sistema iragankorrek erabiltzean osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura ere agertzen zaigula. Baina ikusi ahal izan dugun legez, adizki jokatuak erabiltzen hasten denean, behinik-behin, singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak pluraleko hirugarren pertsonari dagozkion adizkien ordez darabiltza haur honek. Horregatik osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera zalantzan jartzen dugu une honetan.

10. Gerxeago ikusiko dugunez, NOR-NORI-NORK sistemako iraganeko adizkiak eraikitzeke, haur honek *-n* morfema eransten die orainaldiko formei.

Hona hemen erabilera ez-egoki honen adibidea:

(31) ekarri dozunak? (2;06;05)

(32) jan dot hiru (2;06;25)

Baina une batetik aurrera, Oitz singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiez gain, pluraleko hirugarren pertsonari dagozkionak ere erabiltzen hasiko da eta une horretan, hain zuzen, osagarri zuzenarekiko pertsona-komuntaduraren erabilera gauzatzen duela esan dezakegu. Baina kontua ez dago hain argi, zeren une honetan bereizten dituen adizkiak hirugarren pertsona singularrak eta pluralak baino ez dira. Edozelan ere, ikus dezagun pluraleko hirugarren pertsonarekiko komuntadura derakusatuen adizkien erabilera. Hona hemen adibide batzuk:

(33) zuk honek [=hauek] bota dozuz [=dituz]; bota e[g]in dauz [=ditu] hona (2;06;05)

(34) holan altxatzen dauz [=ditu]; nik ez dekotez [=dauzka] (2;08;13)

(35) nik deka [=daukadaz] praka haundiek (2;08;19)

(36) ipurdikuek eingo doguz [=ditugu]? (2;09;00)

(37) eingo doguz [=ditugu] buruz-ipurdikuek?; gordeko doguz [=ditugu] gauzak?; sartuko dauz [=ditu]?; bi daukaguz [=dauzka-gu] (2;10;12)

(38) honek gero eruengo dauz [=ditu] kamioiak; kendu doztez [=dizki] nire kotxiek (2;10;29)

(39) honek [=hauek] be [=ere] ipini ein bi [=behar] dotzeguz [=dizkiogu]; hemen erueten zabiezen [=zituz-

ten] pistolak eta halako gauzak; ba ipiniko doguz [=ditugu] honek dan-danak...; ta holan gauzak eruengo doguz [=ditugu]; eingo doguz [=ditugu] garajiek?; baina honek [=hauek] be [=ere] ipini bi [=behar] dotzeguz [=dizkiogu] hemen atzien (2;11;12)

Adibide bakar batzuetan, oster, pertsona-komuntadura ez-egokia ere badarabil haur honek, hots, singularreko pertsonari dagokion adizkia pluraleko pertsonari dagokionaren orde. Hona hemen halako ekoizpen batzuk:

(40) ez dabez [=dituzte] ein etxie (2;09;00)

(41) ze kamioiak hau bota bi dauz [=ditu] (2;10;29)

Beste behin Oitzek bere burua zuzentzen duela dirudi:

(42) hor be [=ere] zelan dekogun [=daukagun] errobedak eta zelan dekoguzen [=dauzkagun] errobedak (2;11;12)

Oitzek darabiltzan pluraleko hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak bilduz 16. taula osatu dugu. Berton hiru urtera arteko ekoizpenez gain ekoizpen-kopuruak ere adierazten ditugu.

Hau guzti hau, aurrerago ere esan dugunez, hirugarren pertsonaren arloan gertatzen da, singularrak eta pluralak bereiziz. Alabaina, zer gertatzen da osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean?

Oitzek, guk aztertu dugun korpusean behintzat, osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean, gehienetan, adizkia ez-egoki darabil.

16. Taula

OITZ HAURRAREN HIRU URTE ARTEKO EKOIZPENEN OSAGARRI ZUZENAREKIKO KOMUNZTADURA DERAKUSATEN ADIZKIAK

| | Adina | Kopurua |
|------------------------------|---------|---------|
| dotez ¹¹ [=dituʃ] | 2;10;12 | 9 |
| dozuz [=dituzu] | 2;06;05 | 2 |
| dauz [=ditu] | 2;06;05 | 5 |
| doguz [=ditugu] | 2;09;00 | 16 |
| dabez [=dituzte] | 2;09;00 | 4 |
| abiezen [=zituzten] | 2;11;12 | 3 |
| doztez [=dizkiʃ] | 2;10;29 | 1 |
| dotzeguz [=dizkiogu] | 2;11;12 | 2 |
| dekuaz [=dauzkaʃ] | 2;08;13 | 2 |
| dekoz [=dauzka] | 2;09;00 | 1 |
| dekoguz [=dauzkagu] | 2;11;12 | 2 |

Halako egoeretan, badirudi NOR-NORI-NORK sistemako adizkiak erabiltzeaz gain, osagarri zuzena bera ere zehar-osagarri bihurtzen duela. Hona hemen zenbait adibide:

(43) oin, ja, jo eiten dotzet [=dio] kotxiari (2;06;24)

(44) Jurgik jo dozte [=diʃ] (2;09;00)

(45) ez dotzet [=dioʃ] ikusiko Jurgiri (2;10;12)

Jo eta *ikus*i aditzekin, ostera, osagarri zuzena hirugarren pertsona denean, adizki zuzenak darabiltza, hots NOR-NORK sistemakoak. Hona hemen adibide batzuk:

(46) ikusi eingo [d]oguz saltatzen (2;09;00)

(47) eta ikusiko dozu zelan jotzen doten; joko dot honekin (2;10;12)

(48) behin ikusi [d]oguz [=genuen]¹²; holan joko [d]otela; ez dau jotzen Marikarmenek; holan joko dot (2;11;12)

Beste aditz batzuekin, *lagundu* esate baterako, haur honek, bere inguruan egiten den legez, NOR-NORI-NORK sistemako adizkiak darabiltza:

(49) Iratik lagundu dozte [=diʃ] (2;06;05)

(50) ... eta zuk lagundu eiten doztezu [=didazu] (2;07;05)

Hala eta guztiz ere, Oitzek 3;09ko adina duenean, NOR-NORK mota-tako bigarren pertsonari dagokion adizki bat darabil. Berau guk aztertu dugun korpus osoko adibide bakarra da. Hona hemen, inguru eta guzti:

11. Adibideetan zehar ikus daitekeenez, arlo fonetikoko fenomeno desberdinen arabera, sarritan haur honek forma bat baino gehiago darabil adizki bera gauzatzean. Adibidez: *dotez* / *dodaz* / *duaz*. Halere, morfologikoki ez du aldaketarik gauzatzen.

12. Oitzek, sarritan, iraganeko adizkiak egiterakoan, oraineko adizkiei *-n* morfema hutsa eransten die. Fenomeno hau zehatzago ikusteko ikus Barreña (1993, 1994b).

(51)[Mintzaide heldua orein-burruka bat kontaktzen ari zaio ipuin batetik, eta kontaketa etenik, ondoko elkarrizketa sortzen da].

Mintzaidea: Zuk be burrukan egiten dozu Jurgigaz ezta? Zelan egiten dozu burrukan Jurgigaz ba?

Oitz: holan, hhauh!

Mintzaidea: Zezenen moduan?

Oitz: bai.

Mintzaidea: Zelan ipintzen zara ba?

Oitz: joten nau holan ta, hartzen dot eta arineketa baten ta eperditik sartzen dotzet [=diolet] (3;09;11).

Hau guztia ikusirik, badirudi osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura derakusaten adizkiak gauzatzean, une batetik aurrera, pluraleko eta singularreko hirugarren pertsonari dagozkien adizkiak baino ez dituela bereizten. Lehen pertsonari dagokion adibidea beranduagokoa da, eta bere gurasoen ekinaren emaitza dela pentsa daitekeen arren, hori ez da nabaritzen ekoizpenaren unean. Lehen eta bigarren pertsonari dagozkien osagarri zuzenarekiko komunztaduradun adizkiak erabiltzeko eragozpenak dituela ere pentsa daiteke.

Edozelan ere, argi dago pertsona-komunztaduraren arloan, osagarri zuzenari dagokiona azkena dela agertzen.

Ondorio-bilketa

Aditz-komunztadura derakusaten adizkien jabekuntza-garapenaren deskribaketa egin eta gero, atal honetan hainbat ondorio biltzen ahaleginduko gara. Ondoren, hemen

agerturiko datuak beste ikerketetako batzuekin erkatuko ditugu. Eta azkenik, zenbait eztabaidagai aurkeztuko ditugu.

Oitz haurraren jabekuntza-garapenean nabaria da aditz-komunztadurarik gabeko aldia edo urratsa. Hasiera batean haurrak, grabaketetan zehar, ez darabil adizki jokaturik, baina erabiltzen hasten denean ere, adizki jokatu horiek ez derakusate pertsona-komunztadurarik, singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak izanik, beste pertsonekin ere bai baitarabiltza¹³.

Aditz-komunztaduraren arloan ikus dezakegun lehen erabilera kontrajarria 2;03;09ko adinaz burutzen du. Une honetan subjektuarekiko pertsona-komunztadura hasten da erabiltzen, eta oso denbora laburrean ia pertsona guztiak agertzen zaizkigu, gainera iragankorrek zein iragangaitzak. Urrats honen hasieran ebbl-neurria 2,36koa da eta III. mailan aurkitzen da.

Zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura isladatzen duten adizkiak dira haur honek darabiltzan hurrengoak. Oitz 2;04;24ko adinaz hasten da halakoak ekoizten. Hauen garapena ere, iragangaitzetan zein iragankorretan, arin gertatzen dela esan dezakegu. Une honetan ebbl-neurria 3,34koa da eta IV. mailan sartu da.

Azken pertsona-komunztadura, guk aztertu ditugun datuak ikusirik behinik-behin, osagarri zuzenarekikoa da. Oitzek, lehen adibideak ekoiztean 2;06;05eko adina du. Halere, dudadudako aldi baten ostean, 2;08;13ko adina duenetik aurrera guztiz zabal-

13. Aldi honetako beste berezitasunak aztertzeko, ikus Barreña (1994b).

tzen dira bere ekoizpenean singularreko zein pluraleko hirugarren pertsoneri dagozkien adizkiak. Grabaketa hauetako ebbl-neurriak 3,79 eta 4,12koak dira eta V. mailan aurkitzen direla esan dezakegu.

Halere, osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren arloan, lehen pertsonari dagokion adizki bakar bat baino ezin izan dugu ikusi aztertu dugun korpus osoan. Bigarren pertsonari dagokion bat bera ere ez. Honexegatik iruditzen zaigu zalan-tzagarrria arlo honetako jabekuntza. Baliteke haur euskaldunak eragozpenak izatea arlo honetan, eta hezkuntzaren indargarria beharrezko izatea ezagupen hau erdiesteko.

Bestalde, aditz-komunztaduraren jabekuntza era mailakatuan gertatzen dela ere argi geratu zaigu (ikus 17.

taula), eta bapateko jabekuntza albora daitekeela uste dugu. Nolanahi ere, kontutan hartu behar dugu euskal aditz-komunztadura hirukoitzaz jabetzeko nahikoa izan duela Oitzek bospasei hilabete.

Ikerketa honetan eskaini ditugun datuak, Barreñaren (1993, 1994a) eta Ezeizabarrenaren (1994) ikerketetako datuekin konbaratuz gero, deskribapenaren lerro orokorrak ez direla aldatzen ikus dezakegu.

Barreñaren ikerketetan (1993, 1994a) hemen eskaini ditugun Oitz haur elebakarraren datuez gain beste haur elebidun biren datuak eskaintzen zaizkigu. Ezeizabarrenaren ikerketan (1994), haur elebidun biren datuak aurki ditzakegu¹⁴. Haur elebidun guztien jabekuntza-garapenean hemen ikusi dugun hurrenkera ia berbera

17. Taula

ADITZ-KOMUNZTADURAREN JABEKUNTZA MAILAKATUA OITZ HAURRAREN EKOIZPENEAN

| | Ebbl-neurria | Adina |
|--|--------------|-------------------|
| Komunztadurarik gabeko aldia | 1,12 - 2,28 | 1;05;19 - 2;02;00 |
| Subjektuarekiko komunztaduraren erabileraren hasiera | 2,36 | 2;03;09 |
| Zehar-osagarriarekiko komunztaduraren erabileraren hasiera | 3,34 | 2;04;24 |
| Osagarri zuzenarekiko komunztaduraren erabileraren hasiera | 3,79 / 4,12 | 2;06;05 / 2;08;13 |

14. Barreñak (1993, 1994a) eta Ezeizabarrenak (1994) aztertzen dituzten haur elebidun bi berdinak direnez, guk hemen Ezeizabarrenaren datuetatik hirugarren haur elebidunarenak baino ez ditugu hartuko.

ikus dezakegu aditz-komunztaduraren arloan: lehenengo, aditz-komunztadurarik gabeko aldia; bigarrenez, subjektuarekiko aditz-komunztaduraren erabilera; hirugarrenez, zehar-osagarriarekikoarena; eta azkenik, osagarri zuzenarekikoarena. Desberdintasun bakarra Jurgi haur elebidunak burutzen duena da (ikus Ezeizabarrena 1994), osagarri zuzenarekiko aditz-komunztadura derakusaten adizkiak, zehar-osagarriarekiko komunztadura derakusatenak baino goizago baitarabiltza (ikus 18. taula).

Haur elebakarrak bezalaxe, haur elebidunek ere eragozpenak dituzte osagarri zuzenarekiko komunztadura derakusaten lehen eta bigarren pertsonen dagozkien adizkiak erabiltzean. Haurren gurasoek badarabiltzate halako formak, eta batzuetan haurren ekoizpena zuzentzen ahalegintzen direla ere ikus daiteke, baina haurrek eragozpenak izaten jarraitzen dute.

Bestalde, haur euskaldun elebakar

eta elebidunen artean aurki dezakegun desberdintasunik nabariena elebidunek adizki hauek aldi handiagoan garatzen dituztela da (ikus 18. taula), baina ez erabileraren hasiera data-tzean.

Oitz haur elebakarraren zein beste haur elebidunen datu hauek guztiak ikusirik, euskaraz ikasten diharduten haurrak 3 urte ingururako aditz-komunztadura hirukoitzaz jabetzen direla ere esan dezakegu (osagarri zuzenarekiko komunztaduraren arloan hirugarren pertsonak behintzat). Hain aberatsa eta konplexua den aditz-komunztaduraren sistemaren jabe-kuntza goiztiar honek berretsi egiten du gure hasierako hipotesia, hots, gramatikaren jabe-kuntza, haurrek, sortzetik duten Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoari esker gauzatzen dutela, garunaren heltze neurologikoa gertatzen denean. Zaila iruditzen zaigu, aditz-komunztadura hirukoitz hau hain goiz inguruaren eraginez soilik berenganatu dutela sinistea.

18. Taula

LAU HAUR EUSKALDUNEN ADITZ-KOMUNZTADURAREN JABEKUNTZA MAILAKATUAREN DATAKETA

| | Oitz Elebakarra | Mikel Elebiduna | Peru Elebiduna | Jurgi Elebiduna |
|-------------------------|--------------------|--------------------|-------------------|--------------------|
| Kom. gabeko aldia | 1;05;19 - 2;02;00 | 1;07;14 - 1;09;22 | 1;11;00 - 2;02;14 | 1;10;21- 2;07;19 |
| Subjek. hasiera | 2;03;09 | 1;10;12 | 2;04;15 | 2;08;10 |
| Zehar-osag. hasiera | 2;04;24 | 2;03;11 / 2;04;11 | 3;00;17 | 3;03;14 |
| Osagar. zuz. hasiera | 2;06;05 / 2;08;13 | 2;09;04 / 3;01;04 | 3;05;09 | 3;01;17 |

Bibliografía

- Aldridge, M., (1986): "A first stage in the acquisition of INFL", *Research Papers in Linguistics*, 1, 39-58.
- Artiagoitia, X., (1992): *Verbal projections in Basque and minimal structure*, University of Washington [doktorego-tesi argitaragabea].
- Atkinson, M., (1987): *Mechanisms for language acquisition: learning, parameter setting and triggering*. *First Language*, 7 (1), 3-30.
- Barreña, A., (1993): *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz [doktorego-tesi argitaragabea].
- , (1994a): "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos", in J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuet/Iberoamericana, Frankfurt, 231-284.
- , (1994b): "Aditz-denboraren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan", *Zutabe* 35.
- , [agertzeko]: "Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun", in M. Etxebarria, I. Idiazabal, J. Tynan (arg.) *Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas*, EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, Donostia.
- Bickerton, D., (1991): *Syntactic development: the brain just does it*, University of Hawai'i at Manoa, [eskuizkribua].
- Brown, R., (1976): *A first language. The early stages*, Harvard University Press, Cambridge.
- Ezeizabarrena, M. J., (1994): "La concordancia con el Sujeto en euskera: formas verbales de simple, doble y triple concordancia", in J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuet/Iberoamericana, Frankfurt, 181-229.
- Hernandez Pina, F., (1984): *Teorías psico-sociolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*, Siglo XXI, Madril.
- Idiazabal, I., (1991a): "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batzaz besteko luzeera (EBBL) edo MLU", in J. A. Lakarra (arg.) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria, 1289-1295.
- , (1991b): "Izen Sintagmaren Determinate-artikulua eta bere jabekuntza. Lehengo emaiak euskaraz eta erdaraz", in I. Idiazabal (arg.) *Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Donostia, 169-181.
- , (1994a): "Elementos de cohesión y conexión en las primeras fases de la adquisición del lenguaje: Análisis de la producción verbal de un niño bilingüe vasco-hispanófono", in J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuet/Iberoamericana, Frankfurt, 35-68.
- , (1994b) [agertzeko]: "First Stages in the Acquisition of Noun Phrase Determiners by a Basque-Spanish Bilingual Child", in C. Silva-Corvalan (arg.) Georgetown University Press.
- Laka, I., (1988a): "Configurations Head in Inflectional Morphology: The Structure of the Inflected forms in Basque", *ASJU XXII-2*, 343-365.
- Lebeaux, D., (1987): "Parameter-Setting, the Acquisition Sequence, and the Form of the Grammar: The Composition of Phrase Structure" [*GLOW* biltzarrean aurkeztutakoa: Utrech].
- Mahlau, A., (1994): "Orden de palabras y estructura oracional en los niños bilingües", in J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuet/Iberoamericana, Frankfurt, 69-111.

- Meisel, J. & Müller, N., (1992): "Finiteness and Verb Placement in Early Child Grammars: Evidence from Simultaneous Acquisition of French and German in Bilinguals", in J. Meisel (arg.) *The Acquisition of Verb Placement*, Kluwer Academic Publishers, Dordrecht, 109-138.
- Meisel, J., (1994a): "Getting FAT. Finiteness, agreement and tense in early grammars", in J. Meisel (arg.) *Bilingual First Language Acquisition: French and German Grammatical Development*, Benjamins, Amsterdam.
- , (1994b): "La adquisición de la negación en euskera y español. Sobre la separación temprana de sistemas gramaticales por niños bilingües", in J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*, Vervuet/Iberoamericana, Frankfurt, 151-180.
- Ortiz de Urbina, J., (1988): *Some Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- , (1992a): "Interrogative Discharge and the Wh-criterion in Basque", in J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU gehigarria, Donostia, 295-308.
- , (1992b): "Inversión y movimiento verbal en euskara", *Revista Española de Lingüística* 22-1, 107-132.
- Ouhalla, J., (1991): *Functional Categories and Parametric Variation*, Routledge, Londres.
- , (1992): *Functional Categories, Agrammatism and Language Acquisition*, Frankfurteko Unibertsitatea [eskuizkribua].
- Oyharçabal, B., (1992): "Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque", in J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU gehigarria, Donostia, 309-342.
- Parodi, T., (1989): "The acquisition of word order regularities and case morphology", in J. Meisel (arg.) *Two First Languages: Early Grammatical Development in Bilingual Children*, Foris, Dordrecht.
- Platzack, C., (1989): *A grammar without functional categories: A study of early swedish child language*, University of Lund [eskuizkribua].
- , (1992): "Functional Categories and Early Swedish", in J. Meisel (arg.) *The Acquisition of Verb Placement*, Kluwer Academic Publishers, Dordrecht, 63-82.
- Pollock, J.I., (1989): "Verb Movement, Universal Grammar, and the Structure of IP", *Linguistic Inquiry*, 20, 371-424.
- Radford, A., (1986): "Small children's small clauses", *Research Papers in Linguistics*, 1, 1-38.
- , (1992): "The Acquisition on the Morphosyntax of Finite Verbs in English" in J. Meisel (arg.) *The Acquisition of Verb Placement*, Kluwer Academic Publishers, Dordrecht, 23-62.
- Uriagereka, J., (1992): "The Syntax of Movement in Basque", in J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU gehigarria, Donostia, 417-445.